

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure enpresaren jarduera garrantzitsuena gure bezeroei zerbitzu erraz eta merke bat eskaintzea da. Horretarako hurrengo funtsezko jarduerak bete behar ditugu:

- Hasteko, gure enpresaren jarduera garrantzitsuena izango da bidaiak antolatzea. Bezeroak gurekin harremanetan jarriko dira, eta guk eskaintzen dugun bidai guztien artean bat aukeratzen dutenean lan egiten hasi behar gara. Garrantzitsuena garraioa, ostatua eta egingo dituzten jarduerak antolatzea izango da.
- Ostaturako, jakina, gure bezeroak ostatu har dezaketen herriak aukeratuko ditugu. Horretarako, guk akordioak egingo ditugu udalekin, bisitetarako prest egon daitezen eta, horrela, zerbitzu hobeak eskain diezazkiguten. Bestalde, garraio-enpresa bat azpikontratatu beharko dugu, gure bezeroek beti izan dezaten Bilbotik, Donostiatik edo Gasteiztik eskuragarri dagoen garraio-zerbitzua.
- Gure bezeroei eskaini nahi diegun beste zerbitzu bat bezeroari arreta ematea da. Gure bezeroetako batek arazo bat badu zerbitzu hutsalekin, bere arazoa telefonoz adierazteko aukera izango dute, edo, bestela, gure lokalera joan daitezke Bilbon, eta gure langileetako batek zalantzak edo arazoak argituko dizkie.
- Azkenik, bidaiak antolatzen dituen enpresa gisa, gure helburua euskal bezero guztiengana iristea da; horretarako, publizitate-kanpaina bat egin nahi dugu, eta, bertan, geure burua ezagutzera eman nahi dugu, enpresa berria baikara. Publizitate honen bidez, gure balizko bezeroen arretarik handiena deitu nahi dugu.

